



BATZAR NAGUSIAK
JUNTAS GENERALES
BIZKAIA

PRENSA OHARRA

Durungaldea Bizkaian integrau zaneko 800. urteurrena ospatzeko ekitaldia

Gerediagan, 2012ko abenduaren 29an

Gaur, Durungaldeko Merindadea Bizkaiko egitura politiko-administratiboan integrau zaneko 800. urteurrena ospatu da. 1212ko abenduaren 29an, Alfontso VIII.a Gaztelako erregea zanak Diego López Harokoa II.a Bizkaiko Jaunari emon eutsazan Durangoko lurrak, azken horrek erregeari Navas de Tolosako bataila historikoan emon eutsan laguntzea eskertzeko.

Gertakari horren ondorioz, Durungaldeko Merindadea Bizkaiko Jaurerrian integretan hasi zan, eta halantxe gogorarazo da gaur eguerdian, Gerediagako Juntetxean. Gerediaga Elkarateak antolatutako ekitaldiak Bizkaiko Batzar Nagusien, Bizkaiko Foru Aldundiaren eta Durangoko Mankomunidadearen kolaborazinoa euki dau, eta, bertan, “Durungaldeko Teila” bi urterik behingo saria emon jako Iñaki García Camino historialariari, mende luzez bere instituzinoei eusten jakin izan dauen eskualde honen jatorria eta historia ezagutzera emoteko egin dauen lanagaitik.

Durangoko Merinalde Egunagaz batera antolatu diran ospakizunak hilaren 27an (egunea) hasi ziran, musika eta antzerki ikuskizun bategaz; bertan, omenaldia egin jaken Durangoko kondeei. Zaragozako “Los Navegantes” konpainiaren eskutik, 1212ko gertakietan oinarritutako “Duranguesado: cruce de caminos” (“Durungaldea: bidegurutzera”) ikuskizunaz disfrutatuko aukerea egon zan.

Hurrengo egunean, Durangoko Kurutzesantu Museoan, Jon Irazabalen “Duranguesado: breve historia” (“Durungaldea: historia laburra”) liburua aurkeztu zan; bertan, 100 orrialde inguruan, egileak eskualdearen bilakaeraren gaineko errebasoa egiten dau, euskerazko eta gaztelaniazko bersinoetan. Argitalpena persona garrantzitsuen biografia laburrez, argazkiz eta ilustrazinoz osotuta dago, bai eta leku enblematikoen gaineko erreseinaz be. Durungaldearen historiaren laburpen kontzentraua da, Neandertaletik hasi eta gaur egunera arte.

Ospakizunak gaur eguerdian amaitu dira, Gerediagako Juntetxean. Durungaldea Bizkaian sartu izanaren 800. urteurrenaren saio nagusian, Iñaki García Caminok, gaur egun Bilboko Arkeologi Museoaren zuzendaria danak, “Durungaldeko Teila” saria jaso dau; hain zuzen be, eskualdetik kanpokoak izan arren, eskualdearen alde lan egiten daben personei emoten jaken saria da hori. Izan be, García Caminok arkeologiaren eremuan egin dauzen aurkikuntzak funtsezkoak izan dira Durungaldearen jatorria eta historia ezagutzeko.



BATZAR NAGUSIAK
JUNTAS GENERALES
BIZK A I A

Ekitaldi honetara instituzino antolatzaile eta kolaboratzaileetako arduradun eta ikusle asko joan dira; besteak beste, Jon Andoni Atutxa, Bizkaiko Batzar Nagusietako Mahaiko lehenengo idazkaria; Josune Ariztondo, Kulturako foru diputadua; Oskar Zarrabeitia, Durangoko Mankomunidadearen presidentea; edo Nerea Mujika, Gerediaga Elkartearen presidentea.



BATZAR NAGUSIAK
JUNTAS GENERALES
BIZKAIA

NOTA DE PRENSA

Acto conmemorativo por el 800 aniversario de la integración del Duranguesado en Bizkaia

Gerediaga, a 29 de diciembre de 2012

El Duranguesado ha celebrado hoy el 800 aniversario de la integración de la merindad en la estructura político-administrativa de Bizkaia. El 29 de diciembre, el entonces rey de Castilla, Alfonso VIII, entregó en el año 1212 las tierras de Durango al Señor de Bizkaia, Don Diego López de Haro II, en agradecimiento por la ayuda prestada en la histórica batalla de las Navas de Tolosa. Este acontecimiento marca el inicio de la integración territorial de la Merindad de Durango en el Señorío de Vizcaya y ha sido recordado este mediodía en la Casa de Juntas de Gerediaga.

En el acto, organizado por la asociación Gerediaga Elkartea con la colaboración de las Juntas Generales de Bizkaia, la Diputación Foral de Bizkaia y la Mancomunidad de Durango, se ha entregado al historiador Iñaki García Camino el premio bianual “Durangaldeko Teila” por su contribución a la difusión del origen y la historia de una comarca que supo mantener intactas sus instituciones durante siglos.

Estos eventos conmemorativos, coincidentes con el “Durangoko Merinalde Eguna”, comenzaron el jueves día 27 con un espectáculo de música y teatro en la iglesia San Agustín de Etxebarria, en donde se rindió homenaje a los Condes de Durango. De manos de la compañía zaragozana “Los Navegantes”, se pudo disfrutar de la obra “Duranguesado: cruce de caminos”, basado en los sucesos de 1212.

Al día siguiente, en el Museo Kurutzesantu de Durango, se presentó el libro de Jon Irazabal “Duranguesado: breve historia”, en el que el autor hace un repaso al devenir de la comarca en una publicación de apenas 100 páginas, con sendas versiones en euskera y castellano. La obra está plagada de fotografías, ilustraciones y biografías breves de personajes relevantes, así como de otras tantas reseñas de lugares emblemáticos. Se podría catalogar como un resumen concentrado de la historia del Duranguesado desde el Neardental hasta nuestros días.

Finalmente, los actos conmemorativos se han cerrado hoy al mediodía en la Casa de Juntas de Gerediaga. En el transcurso de la sesión central por el 800 aniversario de la integración del Duranguesado en Bizkaia, Iñaki García Camino, actual director del Museo Arqueológico de Bilbao, ha recibido la distinción “Durangaldeko Teila”, un reconocimiento a una persona de fuera de la comarca por el trabajo que hace por ella. Sus hallazgos en el campo de la arqueología han resultado claves para conocer el origen y el devenir histórico del Duranguesado.



BATZAR NAGUSIAK
JUNTAS GENERALES
BIZKAIA

Al acto, celebrado en la ermita y la campa de Gerediaga, ha asistido numeroso público y autoridades en representación de las distintas instituciones organizadoras de la efeméride como Jon Andoni Atutxa, Secretario Primero de la Mesa de las Juntas Generales de Bizkaia; Josune Ariztondo, Diputada foral de Cultura; Oskar Zarrabeitia, Presidente de la Mancomunidad de Durango; o Nerea Mujika, Presidenta de Gerediaga Elkartea.